

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Luis Payros Agirrezabal

*Bergara,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Begarako San Pedro kalean jaio zen, bi anaietatik gazteena. Aita, aitona frantziarren biloba, Iruñean jaioa zen. Ama berriz, bergararra zuen. Aita gazterik gaixotu eta hil zen. Amak denda jarri zuen, "Merceria Moderna" izenekoa. Gero "Tintorería Margola"ren denda kudeatu zuen, 87 urte izan zituen arte; 105 urterekin hil zen. Luis Ospitaleko eskolan hasi zen ikasten, sor Eufermiarekin. Gero herriko eskoletara joan zen eta batxilergoa dominikoen seminarioan egin zuen. Kontabilitatea ikasi eta "Banco de San Sebastián"en jardun zuen lanean erretiroa hartu zuen arte. Ordenagailua asmatu aurretik, bankuko lanak nola egiten ziren azaltzen du. Tailer txiki batzuetako kontabilitatea ere eramaten zuen. Mendizale amorratua izan da, eta Pol Pol elkarteko presidentea izan zen urteetan. Zabalotegi auzoan edota berdura plazan izandako aldaketak azaltzen ditu. Iruñe Agirre beasaindarrarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-291

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-20
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-292

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa

- **Data:** 2010-12-20
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Payros abizenaren ibilbidea

- **Erref:** BER-291/002
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:00:16. **Bukatu:** 00:01:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Payros abizena Frantziatik ei datorkio. Birraitona Nogaro herrikoa zen. Zaragozara joan zen eta hango batekin ezkondu. Izan zuten semeetako bat, Luisen aitajauna, Iruñeara joan zen eta Goñi abizeneko nafar batekin ezkondu zen. Euren semea, Luisen aita, Bergarara joan zen.</p>

2. Batxilerra dominikoekin; errebalida

- **Erref:** BER-291/006
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Ospitaleko eskolan ibili zen lehenengo, mojekin. Gero, herriko eskoletan. Batxilerra dominikoekin egin zuen, 17 urtera arte. Errebalida ez zuen gainditu eta urtebete izeba batekin Bilbon pasa eta gero, berriz egin zuen. Urtebetez kontabilitatea ikasi eta "Banco San Sebasti´n"en hasi zen lanean. Bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte (bukaeran "Banco Hispanoamericano" izenarekin).</p>

3. "Banco San Sebastián"en hasi eta "Banco Hispanoamericano"n bukatu

- **Erref:** BER-291/007
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:12:36. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

<p>19 urterekin "Banco San Sebasti´n"en hasi zen lanean eta 25 urte egin zituen. Gero, "Banco Hispanoamericano"ak xurgatu zuen eta izen horrekin jarraitu zuen, eraikin berean. Hasieran bulegari lanak egiten zituen;

gero ahaldun izan zen. "Banco Hispanoamericano" izatera pasa zirenenean, ez zebilen gustura eta dimititu egin zuen. Bulegoko lanera itzuli zen. Geroago, ordenagailuak eta aldaketak etorri ziren eta erretiroa hartu zuen.</p>

4. Banketxeko lan egiteko modua; dena paperean

- **Erref:** BER-291/009
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:16:53. **Bukatu:** 00:18:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

Gehiago gustatzen zitzaion banketxeko garai bateko lan egiteko modua, bera era horretan ohituta zegoelako. Dena eskuz egiten zuten. Gehiketa izugarriak egiten zituzten. 10-15 urtetako artxibo guztiak gordeta izaten zituzten eta urtean behin artxibo zaharrenak botatzen zituzten.

5. Garai batean banketxeetan zerbitzu hobea eta gertuagokoa

- **Erref:** BER-291/011
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Banketxean kutxazain lanean jardun zuen urte askoan. Bere ustez garai batean bezeroari ematen zitzaion zerbitzua hobea eta gertuagokoa zen. Dirua ingresatzera joan zen batean gertatu zitzaiona. Euren sasoitik gaur egunera egon diren aldaketak.</p>

6. Banketxeko ordutegia eta lan-baldintzak

- **Erref:** BER-291/013
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Banketxeak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Banketxean goizeko 9retatik ordu bata arte eta hiruretatik sei eta erdiak arte lan egiten zuten. Ekainaren 15ean eta abenduaren 15ean kontu korronteak ixten ziren eta likidazioa egin behar izaten zen. Halakoetan 9ak arte egoten ziren eta afaldu eta gero ere segi egiten zuten. Ogitartekoren bat eramaten bazieten edo afariren bat ordaintzen bazieten, izugarri eskertzen zuten. Aparteko orduak ez zituzten kobratzen, baina, horrela zelakoan, gustura eta pozik.</p>

7. Emakumeak banketxeetan lanean

- **Erref:** BER-291/014
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:23:23. **Bukatu:** 00:24:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Bera banketxean lanean hasi zenean, denak gizonezkoak ziren. Lehenengo bi emakumeak gazterik sartu ziren, 17 urte ingururekin. Gazteak zirela eta, zuzendariak haiei lehentxoago irteten uzten zien, likidazioa egiten zutenean. Inguruetan emakume bakarra ezagutu zuen bere sasoian banketxean lanean: Maritxu Igartua. "Banco Vizcaya"n lan egiten zuen.</p>

8. "Letras de cambio" delakoaren funtzionamendua

- **Erref:** BER-291/016
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:25:07. **Bukatu:** 00:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak

Laburpena:

"Letras de cambio" zer izaten zen. Zerbait saltzen zenean, letra bat egiten zuen saltzaileak eta banketxera bidaltzen zen. Banketxeak saltzaileari dirua aurreratzen zion eta letra hura bezeroari kobratzen zion epe baten barruan. Epe horren arabera, interesak kobratzen zitzaizkion saltzaileari. Horrez gain, herriaren arabera (banketxerik bazuten ala ez) tarifa desberdinak egoten ziren.

9. San Pedro kaletik trena ikusten zuen

- **Erref:** BER-291/021
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:33:04. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

San Pedro kaleko 19. zenbakian jaio zen. Ingurua nola aldatu den. Zabalotegi inguruan ortuak zeuden. Mendia bistan zegoen, Soledadeko baserria, gainetik trenbidea... Mekolalden "Beheko trena" (Lizarra-Gasteiz-Mekolalde) eta "Goiko trena" (Maltzaga-Zumarraga) elkartzen ziren.

10. "Beheko trena" hartuta Oñatira; autobusean Arantzazura

- **Erref:** BER-291/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:35:25. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

"Beheko trena" esaten ziotenak Lizarra-Gasteiz-Mekolalde ibilbidea zuen. San Prudentzion banatu egiten zen: bata Gasteizera eta bestea Oñatira. Aizkorri aldera mendira joateko, goizeko lehenengo trena hartzen zuten Oñatira eta handik "La oñatiarra" autobusean Arantzazura. Bere emazteak Beasaindik Arantzazura txangoan joan zenean beldur handia pasa omen zuen, orduko autobus irekian.

11. Zabalotegi ingurua

- **Erref:** BER-291/023
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Zabalotegi inguruan ortuak zeuden garai batean. Iturria eta garbi-tokia mojen komentu ondoan. Ingurua nolakoa zen.

12. Bergarako berdura plaza

- **Erref:** BER-291/025
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:38:33. **Bukatu:** 00:40:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Bergarako berdura plazaren eraikina lehengoa da. Nolakoa zen. Behean alondegia. Alboan Jenaro Mansoren ardo biltegia, Correos... Eraikina berritu egin zuten; gerra sasoiko arrastoak omen zeuzkan.

13. Aita jabetza-erregistroko langilea

- **Erref:** BER-291/028
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:41:16. **Bukatu:** 00:42:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Beste batzuk

Laburpena:

Aita jabetza-erregistroko ordezeko moduan etorri zen Bergarara lanera. Gustavo Macho izeneko bergararra hasi zen berarekin, 15 urte inguru zituela, eta hark segitu zuen erregistroan gerora. Erregistroa "Martina Trapuna" esaten zioten etxean zegoen orduan; gerora, nora aldatu den.

14. Dominikoetan meza-laguntzaile

- **Erref:** BER-291/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:42:56. **Bukatu:** 00:44:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Dominikoetan ibili zenean, aita Leonardok kantatu egin behar zuela esaten zion, baina berari ez zitzaion gustatzen. Berak meza-laguntzaile izan nahi zuen eta lortu zuen. Fraidea jatorra bazen, ardo trago bat egiten uzten zien.

15. Bilboko orkestra Bergaran

- **Erref:** BER-291/032
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:48:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Bilboko orkestra etortzen zen Bergarara kontzertua eskaintzera. Amaren lehengusu batek biolontxelo jotzen zuen bertan. Jesus Aranbarri zen zuzendaria. Hasieran frontoian izaten zen ekitaldia. Gerora, musika sakroarekin hasi zirenean, San Pedro elizan. Berari zein gustatzen zitzaion gehiago. Bergarako orfeoak abesten zuen orkestrarekin.

16. Gerratean Antzuolako Urrutia baserrian

- **Erref:** BER-291/035
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:50:10. **Bukatu:** 00:52:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaiko oroitzapen gutxi du. Nazionalak San Migeletik behera etorri zirenean izebaren etxean zeuden. Frontea Bergaran egon zen denboran Antzuolako Urrutia baserrian egon zen familia osoa, Balentin Berriotxoaren amaren jaiotetxean. Gogoan du hegazkin batzuk beste hegazkin bat metrailatzen ikusi zituela.</p>

17. Soldadu italiarrak perfume bila amaren dendara

- **Erref:** BER-291/037
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:53:39. **Bukatu:** 00:54:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Amak denda zeukan San Pedro kalean. Gerra sasoian soldadu kanpotarrekin harremana. Italiarrak perfume bila joaten omen ziren.

18. Ama 87 urtera arte dendan lanean

- **Erref:** BER-291/038
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:56:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Amak denda izan zuen San Pedro kalean. Gerora, hura utzi eta Eibarko Margola tindategiaren ordezkaritza hartu zuen. 87 urtera arte jardun zuen lanean amak.

19. Gerra sasoian dendako euskarazko esaldia kentzeko agindua

- **Erref:** BER-291/041
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:59:53. **Bukatu:** 01:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Gerra sasoian amaren dendako erakusleihoan "Txinda gutxikin gauza asko" ipintzen zuen. Aurretik Mendiolarrena izan zen denda. Oso abertzaleak ziren eta Frantziara ihes egin zuten. Alde egin aurretik, 1935 inguruan, Luisen amari utzi zioten denda. Falangista batzuek erakusleihoko esaldia ikusi zutenean, arratsalderako ezabatzeko edo bestela apurtu egingo zutela esan zioten amari. Felix izeneko pintoreari laguntza eskatu eta amoniakoarekin kendu zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com